

**EUSKAL HERRIKO ATLAS
ETNOLINGUISTIKOA DERITZAN LANARI
OHAR BATZUK**

Donostia, 1984-V-25

Jose M.^a Etxebarria

Euskal Herriko Atlas Etnolinguistikoa. —EAEL— Lehen tala. Lehen zatia, Donostia 1983 XXI-277 orrialde. ISSN 0027-3414.

Ezkerreko orrialdean Euskal Herriko mapa, ikur batzuk hitz batzuk zenbat herritan agertzen diran eta ohartxo batzuk.

Esquibiko orrialdean agertzen dira herriak, erantzunak eta probintzia.

Gainera alfabetoz doaz eta orduan Oiartzungo erantzunaren atzean Oñatikoa dator probintzi berdineko herriak izanik, euskalki desberdinak dituzten arren.

Txosten hau zati bitan banatuko dut. I.an lana bera, eta bigarren inguruko zenbait gauza.

Atlas etnolinguistiko izeneko eta izaneko lan baten honelako datuak kontutan hartzen dituzte:

1. Zuzenean egindako grabaketa edo postaz egindakoa.
2. Aukeratu den lurraldea eta hizkuntza edo mintzaira baten eremua.
3. Galdeketa edo itaunketa bera.
4. Erantzunen grabaketa.
5. Herrien edo lekuen aukera bilketarako.
6. Lekukoak eta biltzaileak.
7. Traskribaketa fonetikoak.
8. Azpiegitura.

1. **Zuzenean egindako bilketa.** Sarreran, XXV-XXIX orrialdetan adierazten duenez, biltzaileek zuzenean jaso dituzte erantzunak. Zuzenean jasotzeko era bi daude. Bat galdera egin eta grabatu, magnetofoni, kasete edo nolabaiteko tresna baten. Edo ta bigarrena, galdera egin eta erantzuna fonetikoki edo erdi fonetikoki traskribatu. Bigarrena izan da erabilitako bidea. Kasu honeta-

rako belarri oso zorrotza behar da eta *oso ohitua traskribaketetara*. Ez da nahikoa traskribaketetarako “Filosofi eta Letretan lizentziatuak, euskarako irakasleak, Euskaltzaindi edo Euskerazaintzakoak” izatea (V orr.). Edmonten kasuak ondo adierazten du esan dudan hau. Belarri zorrotza behar da alde batetik. Eta ariketa asko bestetik.

Horrelako tituloak nahiko ez izanik traskribaketa lanetan aritu gabe, beste akats bat ere agertzen da: asko izatea. Gutxi izanda ere traskribaketak egiterakoan oso zaila da traskribatzaile guztiak batera etortzea. Are zailago 100 biltzaile edo 120 biltzaile bide berdinetik joatea. Elkarrekin ariketak egin da ere ez da hori lortzen eta askoz gutxiago bakoitzak bere bidetik erantzunak biltzen baditu, kasu honetan gertatu den bezela, 100/120 biltzaile izanik.

Baten batek prestatu zuen alfabeto konbentzionalen oinarrituta gipuzkerarentzat eta bizkaierarentzat, behintzat. Baina ez dakit hori inork erabili zuen. Ez dute ezertarako aipatu behintzat.

2. **Lurraldea.** Euskalherri osoa agertzen da baina muga administratioboak azalduz bakarrik. Adibidez ez da inolako mugarik agertzen Arrasateko euskera bizkaiera denik adierazteko, mapetan. Edo Oartzungo euskera zein euskalkitakoa den edo Zugarramurdikoa, edo Beraskoitze edo Urtetako euskera zein euskalkitan sartu daitezken.

Etnolinguistikoa bada, bidezko da mintzaira bakoitzaren mugei buruz zerbait esatea, etnia eta mintzaira lotuta daudelako.

Atlas etnolinguistikoa izeneko lan batek mintzaira baten mugak adierazi behar ditu lehenengo eta gero beste muga batzuekin duten zerikusia, mintzaira horren edo euskalki horren lehena ondo ezagutzeko eta geroa prestatzeko, mintzaira horrek iraun dezan edo irauteko bideak zabaldu ditzan. Gainera hortik atera daitezke beste ondorio batzuk nondik hartu duen kutsurik nagusia, mailebu hitzak, zergatik gorde dituen forma batzuk eta beste batzuk galdu, etabar. Mintzaira batek dituen espazioa eta denpora eskuratu nahi baititu atlas batek. Eta bere egoeraren denpora mugatu baten.

3. **Galdeketa edo itaunketa.** Hau izaten da atlas linguistiko guztietan ardatz nagusienetako bat.

AIS-ekin hasi eta bai Frantziko NALF edo Rumaniako Noul Atlas linguistic roman pe regiuni’ (NALR), denak alderdi bi izaten dituzte; mintzaira eta etnia. Hizkuntza eta mintzaira kultura bati lotuta daude. Barandiaranek esaten dituen galdera nagusi batzuk egiten ditu gizatalde bakoitzak: ni nondik nator, nola lortu nagon lurraldean bizitzeko behar ditudanak, nola komunikatu besteekin. Eta gure arteko atlasak ere bi alderdi hauek behar ditu.

Orduan Euskalherrian ezin daiteke galdetu atlas etnolinguistiko baterako: mulo, caballo, camello, 81.ean, buey, búfalo, reno, 82.ean, león, 90.ean, pan, tortar o cuscus, 133.ean, león, tigre, puma, oso blanco, pantera, hiena (Cohen 430-431) chacal o coyote, elefante, hipopótamo, morsa, mono, jirafa, canguro, foca, cocodrilo, tiburón, pingüino (Cohen 431-436) flecha, manto,

toga, túnica, raqueta, patin o esqui, lanza o venablo o rompecabezas, bome-rang, escudo o coraza (Cohen 494-506); edota, hechicero (Cohen 40), edo honelako esakuntzak: “Los hijos del jefe han estado de caza durante dos días”; “La madre del jefe ha guisado su propia comida” (Cohen 247-248). Cohenen “Questionnaire” delako hori, osorik baztertu gabe, egin zitekean adibidez, *lesikoa* biltzeko galdeketa bat.

Zati bat Cohenen itaunketatik hartu eta beste zati bat, beste batetik. Esate baterako, ALEANR-erako Alvarrek prestatu zuen galdeketatik, askoz hurbilago dagoelako euskaldunen kulturatik. Cohenen 400 galdera eta Alvarren 1700 bat hartu eta lesiko bilketa zehatzago bat eta probetxugarriago bat egin zitekeen. Baina esate baterako *lesiko* bilketa hutsa, fonetika, morfologia eta sintasia alde batera utzita.

Cohenen itaunketa dagoen dagoenean hartzek akats handi hori utzi du: bidelariantzat egin da eta hizkuntza ezezagun eta arraroen kasurako, batez ere Afrika, Asia eta Hego Amerikarako. Eta horrelako itaunketa oso osoan hemen erabiltzea desegokia da.

Hemen beste ohar bat egin beharra dago. Atlas bat geografiarako egin daiteke era batera edo bestera mapa gehiago edo gutxiago jarrita, ibai gehiago edo gutxiago afluente batzuk jarrita eta besteak utzita, eta holako mendiak jarrita eta besteak utzita, eta Euskalherriaren bi, hiru eta lau atlas egin daitezke. Baina etnolinguiistikoa denean, bat bakarra egin daiteke. Hori izango da zehatzagoa lekukoen sarea hestua duelako edo ez hain zehatza. Baina etnia baten mintzaira eta kultura jasoko dituen izan behar du. Gure kasu honetan, Afrika eta Asiako hizkuntzentzat egindako itaunketa bat hartu dute.

Egin zitekean Atlas orokor bat. Edo euskalki baten atlasa. Baina inolaz ere ez Afrikarako egindako itaunketa batekin.

Orduan gure kasuan ez dago izenaren eta edukiaren artean erlaziorik: galderak edozein tokirako egokiak dira eta izenak jartzen du “Euskalherriko Atlas Etnolinguiistikoa”.

POP-ek, Cohenen itaunketa hau ez du jartzen gainera atlas baterako itaunketa bezela. Honelako izena jartzen dio: “Un questionnaire pour la rédaction des vocabulaires de voyageurs” (Pop, 27. orrial. eta oharra). Horregatik 1950 arte egindako atlas guztien galdeketak aztertu ondoren, hau esaten du: ‘Les questionnaires linguistiques I et II publiés en 1928 (sous le titre général: ‘Instructions pour les voyageurs’) par L’Institut d’Ethnologie de Paris et repulés dans une nouvelle édition par le Comité International Permanent de Linguistes semblent avoir le même but. Le second de ces questionnaires rédigé par le savant Marcel Cohen, ne tient pas suffisamment compte des questionnaires employés dans le domaine des langues romanes, mais le doit servir surtout à l’exploration des langues moins connues. Il contient cependant un bon nombre de phrases’ (Pop. 1137. Nik azpimarratuta).

Itaunketa hau orokorra delako, ez da egokia mintzaira baten atlas bat egiteko. Bestalde atlasak mintzaira baten argazki bat eman behar du. Eta hau

da 'un questionnaire pour voyageurs'. Orduan ezin du eman euskalkien argazki bat, zati batzuk jaso baino. Eta hitzak eta edukinak bortxatu gabe, ezin daiteke deitu atlas, honekin egindako lan bat.

Askoz egokiago zitekeen, liburu horri 'Euskerari buruzko galdeketa lesi-ko bat' edo honelako zerbait jartzea izenburutzat.

4. Erantzunen bilketa. 1977an lan hori hasi zutenean, bazeuden kasete txiki batzuk grabaketa osoa jaso gabe ere, zati batzuk grabatzeko, eta gero sortzen ziren zalantzak, argitzeko eta lan probetxugarri bat egiteko. Baina lan honen koordinatzaileak, fonetika zalantzarik ez dauka. Etnografia lanetan ibilia da eta etnografia bilketekin nahastu zuen seguraski, mintzaira bilketa bat.

Biltzaileak. Biltzaileen borondate ona eta gogo beroa ezagutzen ditut. Borondaterik onenarekin danek lan egin dute. Eta gehienek dohan, uste dut. Borondate onak galdu egiten gaitu euskaldunok sarritan. Borondate ona dago baina honelako lan bat egiteko, borondatea ez ezik beste egitura eta erakunde batzuk behar dira. Eta hori biltzaileei prestatuta eman behar zaie. Ezin dituzte alde batetik erantzunak jaso, bestetik dena eratu, eta bestetik argitaratzeko prestatu, eta dana dohan. Hemen diruaren kontua ere sartzen da eta hori geroago aipatuko dut. Honelako lan bat euskeraren eta Euskalherriaren onerako behar den bezela egiteko presupostu bat behar da, biltzaileak prestatu, azpiegitura bat sortu. Eta ezuste asko agertuko dirala kontuan izan. Bestela txapuzak egiten dira euskeraren kalterako eta geure buruaren parregarri. Gainera lan honek irakurle asko engainatu baino ez ditu egiten 'atlas etnolinguistikoko' izenarekin agertzen delako, atlas etnolinguistikoko ez den zerbait.

5. Herrien aukera. Herriak aukeratzekoan, atlas etnolinguistikoko baterako, muga administratiboak ez dira inportanteenak, muga linguistikokoak baino.

Herriak, erizpide linguistikokoak kontuan izanik aukeratu behar dira atlas etnolinguistikoko baterako behintzat. Adibidez, euskalki biren arteko mugan daudenak. Lezo eta Hondarribia esate baterako edo Ondarroa eta Mutriku.

Aukeratu daitezke baita, sare sarratu edo zabalago bat egiteko asmoarekin edo herri nagusienak, edo, subeuskalki edo banatasun bakoitzaren erdiko herri bat, eta bazterreko bat. Baina ez da inolako argibiderik agertzen lan honetan aukerari buruz. Adibidez aukeratzen dira Mungian bi, B5eta B6, eta ez dago ez Getxo, ez Plentzi, ez Sopela. Lapurdi 'probintziaren' barruan herri hauek daude: Arbona, Hazparne, Beraskoitze, Itsasu, Sara, Urketa, Ziburua. Bonaparteren eta Irizarren zatiketaren arabera Arbona, Sara eta Ziburun *lapurtera* egiten da, eta Hazparne, Berazkoitze, Itsasu eta Urketan, *baxenafarrera*. Nafarroan Zugarramurdi agertzen da eta horrela da. Baina euskalkiz *lapurtera* egiten da hor, Bonaparteren iritiz. Orduan ez da inolaz ere *linguistikoa* atlas hau.

6. Lekukoak. Lekukoak aukeratzeko, adina jartzen da neurri bat bezela: herrikoak bertakoak, bertan jaioak eta kanpoan luzaro ez ibiliak, gura-

soak bertakoak zituztenak eta ahoz ondo. Erizpide hauek egokiak dira, baina betetzen diran jakin behar da. Bakarrik aipatzen da adina eta herria (XXV-XXIX orrialdeak sarreran). Ez da agertzen beste datorik eta sinistu egin behar gainontzekoak. Atlas baten horrelako datoak ere jarri egiten dira, gaur behintzat, 'Atlas Linguistique de L'Est du Canada' deritzanean jarri dituzten bezela (I tomoa 45-118). Edo beste edozein NALFen barruan dauden atlasetan. Edo ALIn.

7. **Traskribaketak.** "Inkestagileek erabilitako fonetika zeinuak interpretatzea izan da gure eginkizunik zailenetako bat. Izan ere argi dago ez gaude-la ohituta, gure artean egiten diran lanetan ez gara ohitu idatz-arau xume batzuk betetzen, gure inkestetan gertatutakoa lekuko, guk emandako arauak nahiko zehatzak izan arren; bestalde, inkestak berak arau batzu ditu eta baita ere, norberak erabilitakoak adierazteko orri bat. Hala eta guztiz ere askotan ez dira guzti hauek kontutan izan. Ondorioa hauxe izan da: Behin eta berriz joan behar dela halako lekutara, halakori dei egin behar izan diogula gure zalantzak argitzearren tab." (XII orrialdean). Talde teknikoak jaso ez baditu inkesta guztiak, zeintzuk dira zalantzazko erantzunak? Ez da inolako oharrik agertzen hau adierazteko.

Lanaren beraren egileak zalantzak eukitzea eta hara ta hona joan beharra ondorio normala da aurretik zehatz biltzaile danak ohitzen ez ba dira galdera berdina, era berdinean eta alfabeto berdinarekin traskribatzen. Eta biltzaileek era desberdinetan egindako galderak, eta alfabeto desberdinarekin idatzita ekartzen badituzte, ez da posible euskalkiak hobeto ezagutzea.

Horrelako hutsuneetan katigatuta ez gelditzeko aurretik prestakuntza egokia behar da. Bestela irakurlearentzat ez da ezer berririk ateratzen. Eta lehenengo eta behin alfabeto fonetiko bat, API, AFil, edo beste alfabeto bat. Adibidez *Diccionario de Lingüística* deritzan liburuan, XXI orrialdean hasita badaude 6 alfabeto fonetiko desberdin. Edo argitaratuta dagon edozein atlas linguistikotan ere badaude. Jakina, beti euskeraren soinuentsat ego kituta.

Bokaleak

35. Galderan Mungian *andré*. Ondarroan *andri*. Bukaerako bokale hori azentoduna da bakarrik ala luze xamarra ere bai? Ezin dezakegu jakin dato hauekin.

Bokalak nolakoak dira: luzeak eta bikoitzak, ala luzeak bakarrik? Orozkon 54. galderan: *zaarrak in dire*. Zeberion *saartu in dire*. Bokale bikoitza esaten dute ala *a* luzatua?

Ataunen *zaartu* eta Bidanian *zaartu*. Errenterian berdin. Bokale hori bikoitza da ala luzea mintzairan?

Altzai, Bildoze-Domezain, Domitxinen, *zahartü*. Bokale bikoitza da silaba birekin? Aspirazioa dago bitartean? Urepelen ordea *xaartu*.

62. Galderan Bildoze-Ozamizen, *badü* eta Santa Garazin *bädü*. Zein da bion arteko diferentzia fonetikoki?

63. Galderan Santa Garazin *emán du* eta Altzai, Bildoze-Ozamizen, Domitxiñen, *eman du*. Zein da bion arteko diferentzia fonetiko?

69. Galderan Bildoze-Ozamizen *püztu* eta Santa Garazin *pützu*. Alternantzia dago ü/u-ren artean? Zer esan nahi du azento horrek?

Bokalen barruan esan ohi da badaudela bokal sudurkariak xibereraz. 94. galderan Xiberuan *papillu* agertzen da. Baina baxenafarreraz *papillona / papilluna*. Mailebu hitza izanik eta sudurkari bat duela, ez dakit *papillu* hori zuzen dagoen. 73. galderan Zuberoa izenaren azpian datozan bost herrietan *zühaiñ*, *zühaiñ* formak azaltzen dira. Bukaera sudurkariak eta bere aurreko bokalak ez ote dira biak sudurkari? Zalantza berdina gelditzen zaigu 83. galderan eta 98garrenean. Nolakoa da ü bokalea *ahüntz* forman eta *üñhuri* forman?

Aramaion 86. galderako *iri* eta Mungiko *idí* berdinak al dira? Zer diferentzia dago *i* eta *i*-ren artean?

Diptongoak

Idazkeran ez dituzte bereizten. Orduan ez dakigu euskera normatiboak esaten duenetik kanpora ezer berririk hitz zerrenda hauek irakurrita.

Goi Naparreratik hasita sortalderantz nola ebakitzen dituzte euskaldunek honelako konbinaketak:

- e + a mugatzailea
- i + a mugatzailea
- o + a mugatzailea
- u + a mugatzailea?

ea ala *e-a* ala *ia* ala *i-a*? Silaba bat egiten dute ala bi? Eta galdera berdina besteentzat: *oa* ala *o-a*; *-ua* ala *-u-a*? 2. galderan *begi-a* ala *be-gia*? *bilhu-a* ala *bil-hua*? 6garrenean. 13. galderan, *es-ki-a* ala *es-kia*? 17. galderan *zangu-a* ala *zan-gua*? 72garrenean berdin. 82. ere horrela.

Orduan herri bateko edo beste euskal soinuek ebakiera lortzen ez badugu dato hauekin, zertarako bidali dituzte kolaboratzaileak borondaterik onenarekin herrietara? *Be-gi-a* dela euskera normatiboan badakigu. Baina interesatzen zaiguna, *ia be-gia* esaten den jakitea da eta noraino irixten den fenomeno hori. Horretarako, eta beste gauza asko jakiteko egiten dira atlasak.

Bokalen artean alternantziarik ba al dago? 69. galderan Santa Garazin *pützu* eta Bildoze-Ozamizen *pützu* agertzen da. Hau kasu bakarra da ala beste bikote berdinak agertzen al direnean berdin gertatzen da?

Adibide bezela uste dut nahiko direla hauek. Goazen orain kontsonanteetara.

82. galderan Bermeon *ididyé*; Etxarri-Aranazen *iriyé*; Irañetan *idiye*; Lesakan *idiya*. Grafia desberdina duten kontsonante horiek fonetikoki berdina ala desberdina dira?

86. galderan Arabako eta Bizkaiko herri batzuetan *txakurra* / *txakurre* erantzunak agertzen dira. Bidarrain, Irisarrin *xakurra*. Urketan eta Ziburun *zakurra*. Dardarkari gogor hori bietan berdina al da fonetikoki? Idazkeran behintzat horrela agertzen da.

95. galderan Bermeon *sugoie* eta Mungian *sugioa*. -i- hori zer da bokalea, erdi bokalea, erdi kontsonantea edo zer?

Galdera honetan Beraskoitzan erantzun bitxi bat agertzen da: *zubi*, *zubia*.

/j/ fonemaren ebakieran B-eraz baditu bereizketak:

[j] [z] [dz] [x]

Gernikako banatasunean [x] bezela ebakitzen da ala [x] / [ʒ] alternantzia dago? [xo] [ʒo] 25. galderan? Ezin genezake jakin atlas honekin. Zer da 242 galderan y: N14 eta G8 *ogi y ori*?

Hortxe bertan BNeran: yuten da, yuanik, yuan da. Eta horren azpian agertzen den *doie*, *doia* soinu berdinak dira? Idazkeraz behintzat ez da berdintasun hori agertzen. Edo AN-eran agertzen dan *badoie*, *badaie*, edo *yoan da*, berdinak dira? 25. 26. galderetan S-eraz *žiten/yiten* [ž/j] alternantzia agertzen da. Baina alternantzia hau nola dago: herri berdinean ala herri bate-tik bestera?

S-eraz s/š agertzen da 54. galderan *zahartu*, *xahartu*. Lapurteraz ere bai. Baina euskalki osoan dago alternantzia ala toki bat edo bestean?

tx-/tt alternantzia zenbateraino gertatzen da? 209. galderan agertzen da, baina zenbateraino eta zein kasutan gertatzen da?

Lekarotz beti sartu izan dute Baztango euskeraren barruan. Baztango txistukariak bereziak dira. A. ALONSOk 1923 agirian jarri zituen, eta oraintxe bertan tesi bikain bat egin du P. SALABURU jaunak. Baina hemen ez da ezer agertzen Lekarozko txistukarien berri jakiteko.

S-eraz Larrasquet jaunak 1931an eta 1935an RIEVen argitaratutako lan baten bereizten ditu s ozena eta gorra eta z ozena eta gorra. Hemengo datuekin ezin dugu ezer argitu honetaz.

tx/x alternantzia ere agertzen da, 92. galderan. Noraino erabiltzen dira bat eta bestea?

Hasperapenkari edo aspirazioak.

56. Galderan agertzen da adibide bat BN, L eta X-eran. Baina mugan dagoen Zugarramurdin ez dator erantzun erdia baino. Zer gertatzen da? 58. eta 75. galderetan Urepelen, Bidarrain, Donamartirin, Uharte-Garazin ez da

agertzen h-. Zer gertatzen da? Eta 76. galderetan ere bai baina ez Xiberoako herri guztietan. Zer gertatzen da? 204. galderan alternantzia agertzen da th/t. Zenbateraino dago hori?

kh: 70, 116, 124 eta 127 galderetan. Ba aldago alternantziarik kh/k? Edo zenbateraino gertatzen da: herri berdinean ala herri desberdinetan?

ph: gutxitan agertzen da adibide bat: 188. baina hemen ere alternantziak herri batetik bestera: phartetatik/partaik. Nolakoa da alternantzia hori?

r/rr/R: 126. galderan *egurra* ala *eguRa* da BN, L, eta S-eraz?

96 eta 97. galderetan berdin. Ez da ezer agertzen hori jakiteko. Gauza danak ez ditut aipatu. Baina nahiko dela uste dut oraingoz.

Atlas baten jasotzen diren erantzunak berdin berdin egindako galderekin jaso behar dira. Bestela nola konparatu adibidez 70. galderako Altzai, Eskiula, Etxarri eta Santa Garaziko *merkhatü* eta Amenduze, Bidarra, Donamartiri, eta Irisarriko *merkatiä*? Lesema biak konparatzeko ez zegoen zertan joan beharrik herri bakoitzera. Badugu Lhanderen hiztegia hori jakiteko.

Jasotako datu batzuk ez dira egokiak ba konparaketarik egiteko. Eta horrek agirian jartzen du lan honen beste hutsune bat: galderak bakoitzak bere erara egin dituela. Galdera desegokiak askotan eta gainera bakoitzak bere erara eginda. Atlas baten kartografia hizkuntzaren zerbitzuan jarri behar da eta ez dira nahikoa muga administratiboak.

8. Azpiegitura

8.1. Kolaboratzaileak

Talde honen barruan lekukoak eta biltzaileak sartuko ditut nik. Eta biak sartu behar direla uste dut.

Lekukoek borondaterik onena izaten dute eta beren denpora dohan eman, beste zeregin batzuk utzita. Orduak eta orduak ematen dituzte. Sari txoren bat ematea komenigarri da, orduz orduko soldata bat eman ezik ere. Eta gero jasotako datuak ez nolanahi erabili edo nolanahiko lanak egin datu horiekin. Hori egiten duena, gizon eta emakume batzuk bihotzeko duten zerbait zapuzten ari da. Eta gainera kasu honetan, euskeraren mesedetan baino kaltetan doan zerbait egiten.

Biltzaileak ere lan honetan borondate onenarekin ibili direla badakit. Baina beste arrisku batzuren artean, arrisku hau ere badago Euskal Herrian: borondaterik onenarekin dabilenaren lepotik lan batzuk besteek egiten dituztela. Gure borondate onak eta euskeraren zaletasunak gauza batzuetan itsutu egiten gaitu. Eta lan bat eskatzen digutenean nola egingo duten jakin behar dugu. Bestela borondate onagatik nahi ez luketen tokian azaldu daitezke izen

batzuk. Eta galdetu behar da ez bakarrik *nola* egingo den. Baita *nola* ematen ari diren lanaren pausu bakoitza, batez ere elkar lanak askoren artean direnean. Eta alde batera utzi behar ditugu izenak, eta izanari jarraitu. Badaudelako beste lan batzuk ere akats hau dutenak zoritxarrez. Aipatzen dugun atlas hau ez da bakarra bide horretan.

8.2. Koordinatzailea eta talde teknikoak

Atlas motako lan baten, hauen lana garrantzi handikoa da. Eta txarto egiten badute beste guztia ankaraz gora gelditzen da. Honako gauza batzuk dituzte betetzeko:

1. Galdeketa egoki bat prestatu, lortu nahi dituzten hitz, soinu, morfologia egitura edo sintasirako. Bestela lan handi batetik oso frutu gutxi jasotzen dira. Lanaren helburuak argi jarri.

2. Alfabeto fonetiko edo erdi fonetiko bat prestatu behar dute kolaboratzaile denek berdina erabili dezaten. Bestela gorago aipatu ditugun gauzak agertzen dira. Eta orduan lan handi bat alferrekoa bihurtzen da.

3. Lan taldearekin zehatz erabaki nola egin behar den galdera bakoitza, eta nola traskribatu behar den. Eta horretarako alkarrekin ariketak egin behar dira, denek oinarritzko prestakuntza bat badutela bermeatu ondoren. Oinarritzko prestakuntza hori gaur behintzat ez da bakarrik karrera bat bukatuta izatea.

4. Ezin daiteke pentsatu etnografiarako egiten den bilketa bat eta mintzaira bilketa bat berdinak direnik.

Adibide batzuk jarriko ditut. 247garren galderan: ‘Los hijos del jefe han estado de caza durante dos días’. Erantzunak:

L1 nausiaren; L2 gudariaren; L3 xef^an; L4, L5 nagusiaren, nausiaren; L6 aintzindariaren.

Jefe hori Afrikako edo beste toki batzuetako tribu baten erakundeekin lotuta dago. Baina erakunde horiek balio ote dute gure Euskal Herriko gizarte honetarako? Eta galdera berdinean honelako erantzunak agertzen dira: ugazaba, alkatea, jefia, buruzagia, erregia, agintaria. Nolako isoglosak atera daitezke honelako galdera batekin?

265. galderan: ‘quiero guisar la comida’. Lapurdi, Nafarroa eta Zuberoan *nahi dut...* Galderarekin ez ote dute behartu lekukoa *nahi dut* aurrean jartzera? Eta horrela agertzen ez denetan, lekukoak agertzen den ordenan erantzun du, ala biltzaileak zuzendu ote du erantzuna? Ez zaigu inon azaltzen lekukoaren erantzuna zuzenduta dagoen, zenbateraino behartu duen biltzaileak, ala berez berez eman duen erantzuna. Ikusi honetarako 271 eta 275. galderak esate baterako.

Badago lan bat beharrezkoa dena atlas linguistiko bat edo nolana hiko mintzaira bilketetarako: Manuel COMPANYS, *Les nouvelles methodes d'en-*

quête linguistique, Via Domitia, 1956, 90-137, eta Via Domitia, 1958, 51-167.

Etnografia mintzairarako lagungarri izango da, baina ez da nahikoa. Eta honekin lotuta dagoen beste gauza bat. Euskal Herriko Atlas Etnolinguistikoko honetan arduradun direnetariko bat eta biltzailereren bat edo bik ez dakite, euskalki desberdinak ulertzeko adina euskerarik. Galderak bildu zituztenean ez zekiten behintzat eta gero baten batek behintzat ez du ikasi. Etnografia egin daiteke interprete edo itzultzaileak erabiliz. Baina hizkuntza baten atlasa ez. Behintzat lehenengo munduak erabiltzen dituen parametroak erabili nahi baditugu.

Horregatik euskera ez dakiten batzuk zer, eta euskal atlas etnolinguistikoko bat egitea gehiegi dela uste dut. Dena den, bide hori hartu duten aurrenengoak ez dira zoritxarrez. Bide berdina eta urte batzuk aurrerago, M. Alvar jaunak eta bere kolaboratzailearen batzuk hartu zuten, *Atlas lingüístico y etnográfico de Aragón, Navarra y Rioja* egiteko. Adibidez lan horretan ez du inork eta inon adierazten honelako erantzunak bi hizkuntza desberdinetakoak direnik. Behintzat euskerak eta Aragoi, Nafarroa eta Errrioxako erderak bi hizkuntza desberdinen neurriak betetzen dituzte eta. Ez ditut hemen jarriko bere traskribaketa, lesemak baino.

11. laminan, adibidez, galdera *erial* da
Bera: landie
Goizueta: larrea sasie
Lekarotz: irezelaye
13. laminan eta galderan: *rozar, quitar las zarzas*.
Bera: garbitu, belasarak kendu
Lekarotz: eskardar / yorratu
17. laminan galdera: *roturar*
Bera: goldia irauli
Goizueta: —
Lekarotz: luberjetu, luerri
18. mapan, galdera: *hormiguero maleza amontonada cubierta de tierra quemada*
Bera: mulswua
Goizueta: xundarra
Lekarotz: ziken'pille
66. mapan, galdera: *deshacerse un haz* (porque se rompe el vencejo)
Bera: zabaldu
Goizueta: —
Lekarotz: gaizkilotwa
124. mapan, galdera: *coyunda*
Bera: ediak

- Goizueta: edea
Lekarotz: ramalillos / edeak
219. laminan, galdera: *taberna*
Bera: sagardotegiya/ardotegiya
Goizueta: taberna/taska
Lekarotz: taberna/ostatwe
284. laminan, galdera: *salvado*
Bera: zaya
Goizueta: zaje
Lekarotz: zaye
439. laminak, galdera: *ciruelo*
Bera: aranarbola
Goizueta: ziruelo
Lekarotz: ziruelo/anana
460. laminan, galdera: *bellota de la encina*
Bera: ezkurra
Goizueta: bellota
Lekarotz: bellota/ezkurra
604. laminan, galdera: *rebaño*
Bera: rebaño/artaldia
Goizueta: rebaño/artaldea
Lekarotz: rebaño artaldia
689. laminan, galdera: *cordero de un año*
Bera: anxua
Goizueta: bildoze
Lekarotz: primal/anxue

8 tomo argitaratuta daude eta erdal edo gaztelera hizkuntzako ez diren horiek zer diren jakiteko lorratz bakarra 5garren galderak ematen digu. Galderak honela dio: *nombre del habla local*.

Habla local delako hori Beran deitzen dute *uxkara*; Goizuetan *baxko* eta Lekarotzen *euskera/basko*.

Baina euskerarik ez dakien batek euskerari buruzko lan bat egin deza-keela, beste lan batek ere adierazten du. Badago 'Estudio sociológico del euskera en Navarra' izeneko proiektu bat. Honen berri agertzen da *Fontes Linguae Vasconum*, aldizkarian, 1982. urtean 539-554 orrialdeetan. Arduradun bezala Hortensia Viñez Rueda agertzen da eta koordinatzaile bezala Ramón Blanco Carril jauna. Proiektu hori aurkeztu zuenean aipatutako emakumeak ez zekien euskerarik. Are gutxiago, Nafarroan erabiltzen diren 6 euskalkiak edo Goi Nafarrera biak euskalki bat bezala hartuta 4 bat euskalki.

Tradizio hori badago egon. Baina ez dut uste linguistikaren izenean sortu den joera bat izan denik. Orduan utzi dezagun bide hori, baina jakinik baten batzuk badabiltzala bide horretatik.

8.3. Erakundeak

Euskal Herriko Atlas Etnolinguistikoaren sarreran aitortzen da laguntza lortu dutela Gipuzkoako Foru Aldundiarengandik, Eusko Ikaskuntzarengandik eta Lankide Aurrezkiarengandik. Eusko Ikaskuntza 40 urteko derrigorrezko loalditik esnatu berria zen eta ez zituen arau argiak. Eskertzekoa da laguntza eta uste dut erakunde guztiak ados egongo direla euskerari laguntza emateko, euskera delako ondasunik handienetako bat Euskal Herrian. Baina laguntza emateko berme batzuk eskatu behar dira. Edo bestela argi ta garbi esan edozein lani emango zaiola laguntza, batez ere izena duen norbaitek eskatzen baldin badu. Izenak ez duela garrantzirik esan dezatela argi, gorago aipatu ditudan kolaboratzaile horietakoek, gerizpe on baten ondoan, laguntza lortu dezaten. Interesgarri litzateke baita jakitea nolako metamorfosiak behar diren laguntzak lortzeko, inguruan ikusten direlako sikiatrak soziologo bihurtuta, linguistak ere bai, eta injineru tekniko edo tekniko batzuk hizkuntzalari. Hemen proposatzen dut karrera bakoitzean horrelako metamorfosiak egiten irakasten duen gai edo asignatura bat jarri dezala dagokion ministeritzak.

Erakundeentzat beste ohartxo ere badaukat. Edozelan egindako lanak ez dira batere mesedegarri euskerarentzat. Eta denon ondasuna den euskera-
ren administrazioa, erakunde guztien gain dago. Orduan nolana hiko lanak, ogi bedeinkatuztat ez zabaltzeko, beharrezkoa da kalitate berme bat. Eta erakundeetan sarritan ez dira egoten hizkuntzalari jaiok ezta dialektologia gauzetan adituak, gorago aipatu dudana metamorfosiaren baten bidez agertzen ez bada baten bat. Baina, Bilbon, Gasteizen, Donostian eta Iruñean badaude filologia ematen den fakultate batzuk. Horko aholkulariak egokiak ez balira, atzerriko jakitun batzuren zuzenbideak emateko prest daude bat baino gehiago. Eta etxeok ez badira ere, kanpokoen eritzi helduak ongi etorriak izan daitezela, euskeraren onerako bada.

Eta azkenik aztertu dudana lan honi beste ohartxo bat. Lan horretan Markinako eta Zornotzako inkestak Joxe Mari Etxebarriaren izenarekin agertzen dira. Ez dira nireak eta nik ez daukat zerikusirik lan horrekin. 1981.ean utzi nuen lan hori eta koordinatzaileari argi eta garbi adierazi nion eskutitzez nere inkesta biak nireak bezela argitaratzeko behar nituen baldintzak. 1981-III-16an idatzitako hitzak hauek dira: 'Por tanto no me responsabilizo de las encuestas del vizcaino hechas por Labayru (ni erakunde horren izenean egon baitnintzen kolaboratzen). Unicamente me haré responsable de las encuestas que he hecho yo. Hacerme responsable significa que yo les daré el último retoque antes de mecanografiarlas. Si no doy ese retoque, tampoco me haré responsable ni garantizaré con mi nombre los datos que aparezcan en ellas. Si esto ocurriera, lo comunicaria a los posibles lectores'.

Irakurleak badaki orduan, metodo, galdeketa, erantzunen bilketa, traskribaketa fonetiko eta beste akatsen gainera, beste akats hau ere baduela lan honek: nire inkesta bi bukatu gabe zeudenak eta nik eskatzen nuen bezala zuzendu behar nituenak nik zuzendu gabe, argitaratu dituztela. Gora behera honetan kolaboratzaileek ez dute zerikusirik, koordinatzaileek baizik.

Bukatzeko nahi nukeen baino sarriagoko esperientziak erakutsi didan eritzi bat jarri beharrean aurkitzen naiz: euskera gauza askotarako jostailu bezala darabilgu eta hori beronen kaltetan doa. Konturatuko ote gara behin-goan?

HIZTEGIGINTZA

